



KORNERREN MAILAZ IGOTZEKO BALDINTZAK ETA AZALPENA

Kutxabankek zure konfiantza saritu nahi du, eta zure txartelen erabilerak saria dauka. Zure kutxabank txartelak gero eta gehiago erabili, orduan eta esperientzia gehiago izango dituzu eskura.

Jarraian, mailaz igotzeko baldintzak eta igoerarekin lotutako pizgarria zein den azalduko dizugu: hileroko, azken 12 hiletan zure kutxabank txartelarekin pilotutako fakturazioa aintzat hartuta, mailaz igo ahal izango zara, eta esperientzia berriekin gozatu ahal izango duzu, opari bat jasotzearekin batera.

Kutxabank txartel hauen 18 urtetik gorako titularrek parte hartu ahal izango dute programan: Visa Debit, Visa Dual Debit, Visa Dual, Visa Crédito, Mastercard Crédito eta Vía T.

Mailen azalpena:

TOP 3: kreditu edo zordunketa-txartel baten titular diren bezero guztiak daude maila honen barruan.

TOP 2: kreditu-txartel baten (edo gehiagoren) titular diren eta azken 12 hiletan 1.200 eta 2.400 € artean fakturatu duten bezero guztiak daude maila honen barruan.

TOP 1: kreditu-txartel baten (edo gehiagoren) titular diren eta azken 12 hiletan 2.400 eurotik gora fakturatu duten bezero guztiak daude maila honen barruan.

Noiz gertatzen da maila aldaketa?

- Automatikoki gertatuko da, goian aipatutako mailetan egoteko baldintzak betetzen dituzunean.
- Maila aldaketa hileroko gerta daiteke, aurreko azken 12 hiletako fakturazioa aintzat hartuta. Eskatutako baldintzak betetzen badira, «upgrade» maila aldaketa automatikoki egingo da.
- Hileko berrikuspenetan, maila igoerak besterik ezingo dira gertatu.
- Urtean behin, baldintza guztiak berrikusiko dira; lehenengo berrikuspena 2019/01/15ean egingo da.
- Indarrean dagoen urte osoan mantenduko da status maila, urteko berrikuspenera arte.

Zein da maila igotzeagatik jasotzen den pizgarria?

Maila igotzen duzun bakoitzean, opari-esperientzia ziur bat jasoko duzu.

- Nola? Posta elektronikoan jakinarazpen bat jasoko duzu, esperientzia bat eskuragarri daukazula jakinaraziko dizuna.

korner.kutxabankplus.es gunera sartu eta «zure esperientziak» menura joan beharko duzu; bertan, esperientziaren kodea aurkituko duzu. Atal honetan, lortutako esperientzien zerrenda eta indarrean dauden esperientziak ikusi ahal izango dituzu.

Kutxabankek oinarri hauek edonoiz aldatzeko eskubidea dauka, osorik ala zati batean. Horrez gain, kutxabankek pizgarriak aldatu ahal izango ditu, eta horien ordean antzeko prezioa eta ezaugarriak dituzten beste batzuk jarri.